

"BOLUNTARIO-LANA OSO JARDUERA GOMENDAGARRIA DA"

Begoña Zubimendi Arzubialde (Donostia, 1962). Aurki, Hurkoako boluntario gisa 20 , urte beteko ditu, hau da, hauskortasun, mendekotasun edo babesgabetasun-egoeran dauden adineko edo buru-eritasuna duten pertsonen arreta eman, zaindu eta euren eskubideak defendatzen dituen CARITAS GIPUZKOAREN fundazioan. Bi hamarkada badira lan horretan diharduela.

"Gure boluntarioen lan nagusia, ospitalean dauden edo zaharren egoitzetan eta etxebizitza partikularretan bizi diren pertsonen laguntzea da", azpimarratu du Begoñak.

Zergatik erabaki zenuen Hurkoan boluntario egitea?

Banekien bizitzak asko eman zidala eta beti kezka soziala izan dudanez, nolabait itzuli nahi izan dut. Denbora neraman pentsatzen, aukera sortu zitzaidan eta aurrera egitea erabaki nuen.

Zer lan egiten duzu?

Hurkoako boluntario gisa, fundazioak babesten dituen adineko pertsonen laguntzen diet, eta boluntarioen taldeko kidea ere banaiz. Taldea, langile eta boluntarioez osatua dago, 100 lagun inguru ditugu, eta trebakuntza-jardunaldiak, etab. koordinatzen ditugu.



Boluntariotzak ba al du iraungitze-datarik?

Ez! Pertsona baten lan profesionalaren amaieran, boluntariotza leku egokia da bere esperientzia erakusteko. Adineko pertsonekin lan egiten dugu, beraz, gure boluntario-profil aproposena, aurre-erretiroaren eta erretiroaren artean nagoen pertsona da.

Osasuna duten pertsonak, ekimena dutenak, ekintzak aurrera eramateko gogoia dutenak... Hurkoarengandik artatzen ditugun pertsonen egonkortasuna eta konpromisoa duten boluntarioak behar dituzte, akonpainamendu-lana ez baita laburra .

Boluntarioak, zer ekarpen egiten dio adineko pertsona bati?

Gauza asko. Bizitza ikusteko beste modu bat. Adibidez, babesik gabeko pertsoneniko sentsibilitate handiagoa. Samurtasuna esnarazten dizu. Hurkoako boluntarioen taldea, giza talde aparta da; bikaina.

Boluntarioaren motxila, astuna al da?

Ez. Eramangarria . Boluntario-lana oso jarduera gomendagarria da.

Pertsona helduei, adinarekin, ahultasunarekin... lotzen zaie. Baina baita ezagutzarekin, esperientziarekin... ere.

Hala da. Bizi ibilbide oso interesgarria dute. Hainbat profil ezagutu ditut, sozialki oso garrantzitsuak izan direnetatik, oinarritzko ikasketarik ez dituztenetaraino. Asko ikasi dut batzuekin zein besteekin.

Boluntariotzari esker 'giza ondare' asko ezagutzeko parada izan duzu.

Bai. Pertsona hauei, batzuetan, ez zaie behar adinako garrantzia aitortzen. Asko dute emateko.

Pandemiaren ondorioz, Hurkoako boluntarioek etxean geratu behar izan dute.

Gure taldetik boluntarioak zaintzen ari gara; babesten, informatzen eta animatzen. Egoitzetan eta etxebizitza partikularretan murrizketa, arreta eta segurtasun neurri asko daude. Errealitate honen aurrean, gure boluntarioek egoera normalizatu arte itxarotea erabaki dute, ostean zerbitzu on bat emateko.

Boluntariotzari dagokionean, nolako etorkizun ikusten duzu?

Zorionez, jende berria animatzen ari da boluntario-lanak egitera. Berri ona da. Bada etorkizunik. Pertsonak sentsibilizatu egin dira, pandemiak bereziki adineko pertsonari eragiten diela ikusita.

Askotan, boluntariotza, ekintzarekin erlazionatzen da. Zuen lana, ordea, entzutean, hitz egitean eta laguntzean oinarritzen da. Hori ere boluntariotza da.

Noski! Lagundu egiten diegu, afektua eta zoriontasuna emanaz, batez ere entzutearen bidez. Bizitzaren gorabeherak direla eta, babesik gabe, hutsik, bakarrik... dauden pertsonen aurrean gaude. Ahultasuna dela eta, boluntarioek zati afektiboa betetzen dute.

Zer eskatzen zaio Hurkoako boluntarioei?

Adineko pertsonak pandemiak bortizki astintzen ari da. Lehenik, aurrekaririk ez duen errealitate baten aurrean gaude, eta, bigarrenik, gaixotzeaz gain, ondorioak gordinagoak izan daitezke... Horri bisitarik jasotzen ez dutela gehitzen badiogu, euren bizi-kalitatea nabarmen murriztu da.

Beraz, boluntarioari konpromisoa eskatzen zaio izendatutako pertsonari laguntzea erabakitzen duen egunetan. Konpromiso sendoa. Astero, egoitza batean edo etxebizitza batean zain egoten den pertsonarentzat, boluntarioa eguzki izpia da. Askotan, hitz egiten duen kanpoko pertsona bakarra da.

Adineko pertsonari, bakardade gogor eta narriadura kognitibo eta fisiko larria eragin die pandemiak. Ez ditzagun ahaztu. Laguntza luzatu diezaiegun!